

David Anant

EUSKARA TEKNIKARIA

Emozioen hizkuntza

Hala esan omen zaio musikari, berriki jakin izan dudanez. Zinez definizio ederra, eta zuzena. Izan ere, hainbatetan hitzek baino askoz ere hobeki islatzen eta jasotzen du musika pasarte jakin batek gure baitako emozio zehatz bat, dela euforia, dela tristura, dela amorrua...

Maiz gertatu baitzait niri behintzat, oilo pikorra eragiten didan kanta bat edo kanta baten zati bat entzun, eta sentitzea horixe bera dela hitzez adierazi nahi baina adierazi ezin nuena. Doinu horrek esan nahi duena ulertzen eta sentitzen dudala, alegia, eta emozio hori inori azaldu beharko banio akaso hitzez saiatu beharrean musika hori erabiliko nukeela.

Eta musika emozioen hizkuntza dela onartuz gero, ez da jauzi handiegia egin behar beste ondorio bat ateratzeko, euskalgintzaren gure mundu txiki honetara ekartzeko. Honatx: gure diskurtsoari, gure komunikazioari, akaso, musika

Baita hitzez hitzeko zentzuan ere, agian; hau da, gure askotariko komunikazio ekintzetan ohiko moduan musika-doinuak erantsiz.



KARLOS CORBELLA

Baina batez ere beste zentzu batean: gure esanei musikaltasuna erantsiz. Ez hainbeste ideiei eta edukiei dagokionez, baina hitzak hautatzen ditugunean, eta hitz-kateak sortzen eta lotzen ditugunean, hizkera musikalingoa, “kitzikagarriagoa” bila genezake. Ederrenen bilatze hutsagatik? Ez, noski. Emozioak pizteko helburuarekin. Egia baldin bada emozioek hainbesteko

eragina dutela gure eguneroko erabakietan, baita hizkuntzazko erabakietan ere, aldaba hori ere jotzen saiatu beharko dugu, besteak beste, eta hitzen musikaltasunak berak duen magia eta indarra baliatu.

Ideiei eta edukiei deus ere kendu gabe, jakina, deus esaten ez duten hitz ederrek nekez eragin baitezakete funtsa eta iraupena izanen duen emoziorik.

Komunikazioa eta diskurtsoa ez dira izerdirik egin gabe gure helburu eta egiteko guztiak eskura jarriko dizkiguten formula magikoak, baina lagungarri eta are ezinbesteko izanen da zaizkigu ziu-rrenik. Bada, eraginkorragoa izanen da nolabaiteko musika izanen duen diskurtsoa —ez beti eta nahitaez belarriak goxatzekoa—, diskurtso lehor eta zozoa baino. ■

Musika emozioen hizkuntza

dela onartuz gero, ez da jauzi

handiegia egin behar beste ondorio

bat ateratzeko, euskalgintzaren gure

mundu txiki honetara ekartzeko.

Honatx: gure diskurtsoari,

gure komunikazioari, akaso, musika

pixka bat ongi etorriko litzaioke

TXANDAN

Castillo Suarez



Esadazu... zer afaldu duzun. Aspaldi ikusten ez nuen ikas-kide batekin elkartu nintzen lehengoan. Nafarroako herri txiki batean ari da lanean, maisu. Errepidea bukatzen den herri batean. Hiriburutik urruti. Eskola txikia dela eta kontentu dagoela esan zidan. Eskolako haur asko baserri auzoetan bizi direnez, jantoki zerbitzua eskaintzen dute eskolan eta bertan bazkaltzen du, gainontzeko irakasleekin eta haurrekin batera. Harritua dagoela esan zidan. Harritua ikaragarriko arazoak dituztelako jantokiko begiraleek haurrei hainbat gauza jatera emateko. Barazkiak, esate baterako. Gero eta kezka-

Esadazu...

rriagoa denez afera, haurrei zer afaltzen duten galdetu diete. *Pizxa* erantzun dute batzuek; *ogitartekoa*, beste batzuek; *sanjakoboa* edota *patata frijituak*, bakarren batek. Haur horiek —geografikoki, bederen— guztiak gune komertzial handietatik zein janari azkarreko jate-txeetatik urruti bizi dira, baina dieta mota hori azkeneko baserriraino iritsi da. Gurasoekin bilera egin dute eta gero eta denbora gutxiago dutela otorduak prestatzeko argudiatu dute. “Ez dakit denbora kontua den bakarrik —esan diot— opil industrialek zein frijituak badute zerbait listua egi-ten jartzen dutena gure burmuina”. Kafetegian sartu garenean gozo-bonba bana eskatu dugu. ■